



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-10-18

BILERA ZENBAKIA:34

ORDUA ETA LEKUA: Itsa sondoko Udala, arratsaldeko 19:00tan

PARTEHARTZAILEAK: 4 neska eta mutil bat

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

Etxeko lanen errepassoa:

Iraileko akta errepassatu eta etxeko lanen zerrenda aipatu dugu.

Denboraren bankua:

Honen ardura artu duten kideak ez dira etorri gau lantaldera eta momentuz ezin izan denez martxan jarri, beraiekin hitz egin eta ados badaude, gaia 2017 urterako uztea erabaki da.

2017ko dokumental zikloa:

2017 urterako datak pentsatzen hasia komeni da, agendan sartu ahal izateko. Bestetik dokumental edo pelikulak ere aukeratu behar dira eta saio bakoitzean, ondorengo tertulia bat antolatzea ondo legokeela aipatu da. Bestetik, 2016ko uztailan frontoi kanpoan egin zen pelikula emanaldiak izandako arrakastaren ondoren, 2017rako bi saio aire librean antolatzeko aukeraz aritu gara (uda partean biak).

2017 egutegia:

2017ko egutegia dela eta, urrengo lantaldetako esanguratsuak eta azpimagarriak diren urteko egunen zerrenda ekartzekotan geratu gara.

Errefuxiatuen egoeraren inguruko muralak:

5 gune ezberdin identifikatu dira herrian zehar, muralak ezarri ahal izateko. Hauek ere neurtu dira eta orain aurrekontua eskatzea falta da. Muralak auzolanean ezarriko dira.

Berdintasuna:



Eskoletan egin dute Emagin bidez eta ongizateko lantaldeak antolatuta udalaren diru laguntzaz saioa. Bertan ondorengo hiru helburuak landu dituzte 7 eta 12 urte bitarteko haurrekin:

1. Identitatearen eraikuntza soziala eta sexismoa. Maskulinitate eta feminitate ereduak.
2. Gure identitatea nola sortzen dugun, bestearena nola urlertzen dugun eta horren baitan gure artean ze harreman sortzen ditugun.
3. Harreman horietan egon daitezkeen errespetu faltak edo mikromatxismoak identifikatu eta guztion artean ekidin, erantzun edo kudeatzen ikastea.

Orain eskolako haurren balorazioaren zain eta Emagin taldearen balorazioaren zain gaude. Hala ere, ongizate lantaldetik, gai hau herriko gurasoekin lantzea beharrezkoa ikusten dugu eta Emagin taldeari, aurrekontua eskatzekotan geratu gara. Azaroaren 25a zehatza kontutuan izanda, dinamika edo tailerren bat proposatzekotan geratu gara. Egun horretarako zaintza zerbitzua antolatuko da, gurasoak joan daitezten.

Harrera plana:

Harrera planerako urteko bigarren saio informatiboa dela eta, data aldatu dugu eta azaroaren 8an jarri dugu, arratsaldeko 18.00etan. Ordurako 2016an herrian erroldatu direnei eskutitza bidaliko diegu eta beste eragileei ere jakinarazi (eskola, euskera taldea, alkatea e.a).

Azaroaren 15eko lantaldeko bileran baloratuko da saio informatiboaren nondik norakoa.

Herrialdeen garapenerako lankidetzak:

Daukagun zerrendatik Itsasondoko Udalak ondorengo proiektua diruz laguntzea erabaki da:

EL SALVADOR: Edateko ura eta higiene zerbitzu sanitarioak lortu eta bestetik emakumeak ahalduntzea eta gizarteratzea. Proiektu honen bigarren fasea Morazango Iparraldean izango da.

Udalak 1.200 euro inguruko diru laguntza bideratuko du proiektu honetara.

Bokadilo jana festatan:

Aurten 416 euro jaso dira bokadilo janatik festatan. Denera 149 bokata saldu



zirela kontatu da. 121 helduentzako eta 28 umeentzako.

Mahaiak eta aulkiak jartzeko ideia positiboki baloratu da. Prezioak 2015ean bezela mantendu dira (bi euro hurrak eta hiru euro terdi helduak).

Diru honen erabilera ongizate lantaldeak erabakiko du non gastatu. 2015eko dirua ttipi ttipa materialean, haur batzuen udaleku irekiak ordaintzeko e.a erabili da.

2.0 aldizkaria:

Emaginek eskolan eman duen tailerraren berri eta bokata janean herritarren partehartzea eskertuz egingo da artikulo txikia.

Gaztelekua

Gaztelekuaren ardura duen teknikariak, zerbitzu honen inguruko hausnarketa eskatu digu eta ondorengo ideiak atera dira:

Ongizate Lantaldetik gaztelekua bai behar dela uste dugu, Batetik adin tarte horretako gazteei, hurrei bezalaxe espazio fisiko bat eskaintzea ezinbesteko iruditzen zaigu. Bestetik gazteak baloreetan hezi nahiko genituzke: herrigintza eta talde kohesioa, berdintasuna, askatasuna eta aniztasuna esaterako. Guzti hau euren partehartzea eta erabakia sustatuz nola ez. Baloreetan hezteaz gain, talde kohesiorako garrantzitsua deritzogu aisialdirako ere espazioa eskaintzea, ondo pasatu eta talde harremanak indartzeko.

Azkenik, Itsasondo herri txikia izanik, haurren adinei ere erreparatu behar zaie eta urtez urte errealitateak aldatzen joango direnez, zerbitzuak MALGUTASUNA izan behar duela uste dugu. Hau da, ahal bada ez genuke gazteleku, ludoteka edo horrelako izenburuekin zerbitzua itxiko. Urtero, errealitatea aztertu eta horren arabera zerbitzua eskaintzea aberasgarriagoa litzateke, hau posible bada behintzat.

2017 AURREKONTUAK

Ondorengo aurrekontuak adostu ditugu lantaldean 2017 urterako:

Larrialdirako Diru Laguntzak: 3.000 euro (aurreko urtekoa mantentzea erabaki da).

Eskuhartze Familiarra: 16.000 euro (diru honekin urte osorako bi familiei behintzat eskuhartzea eskaintzeko aukera izango genuke, beharra balego betiere



eta diru kantitate hau, urtero bermatzea komenigarria litzateke).

Berdintasuna: 2000 euro (aurreko urtean 1000 euro jarri ziren eta aurten 1000 gehiago jartzea erabaki da, Berdinbidean programan parte hartu ahal izateko batetik eta bestetik lantaldetik sortzen diren ideiak ere aurrera ateratzeko).

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Dokumental zikloa antolatu	azaroa	Leire, marijo
2017 egutegia data bereziak	azaroa	denok
Errefuxiatuen muralak aurrekontua eskatu	azaroa	Leire
Emagin aurrekontua eskatu	azaroa	Marijo
Harrera plana eskutitzak	Urriak 28	Itsaso
Harrera plana eragileei abixatu	Urriak 28	Itsaso, Erkuden, Jabi
2.0 aldizkaria	Urriak 21	Itsaso

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Azaroaren 15ean an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.
Gai ordena:

- Etxeko lanak erreparasatu
- Harrera plana baloratu eta erabakiak hartu.
- Azaroak 25 antolatu.
- Lanbide eta herriko langabetuak aztertu eta egitekoak aipatu.
- 2017 ko aurrekontuak erreparasatu (2017an proiekturen bat martxan jarri nahi bada, orain da momentua aurrekontuetan isladatu eta lanean hasteko).